



ESKOLAKO AGENDA 21

Arrasaten:

Uraren proiektua

17-18 ikasturtean

Arizmendi Ikastola: Gaztelupe, Gazteluondo, Arimazubi eta Santa Teresa gunek
Arrasateko Institutua.
Arrasateko Herri Eskola
Legazpiko Inguru gela (Eusko Jaurlaritza) eta
Udalako Ingurumen Eskola (Arrasateko Udala)



**IKASLEEN KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK
ETA KONPROMISOAK** (osoko bilkuran aurkezteko)

Arrasaten, 2018ko ekainaren 5ean



Gazteluondo: Ainhoa Otxandiano

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok ikasleak gara Arrasateko Herri Eskolan, Institutuan eta Arizmendi Ikastolan (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetan). Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

Arrasate Herri Eskola: June Urionabarrenetxea

Duela 15 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasangarria, bioaniztasuna bi urtetan, mugikortasuna, bizitzeko herria, iaz klima aldaketa, eta aurten ura izan dugu gaia. Datorren ikasturterako nekazaritza eta nekazaritza kultura aukeratu dugu jadanik.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

Arimazubi: Jon Aranzabal

- Ingurumen Eskolara joan garenean Madariaga ibaia aztertu dugu; bertan hainbat froga egin ditugu ur kalitatea neurtzeko: uraren abiadura hartu dugu eta azidotasuna neurtu, besteak beste. Ibai ertzeko landaretza ere aztertu dugu, eta uretako hainbat animalia ere bai.
- Deba ibaira ere gure azterketa eraman dugu, eta hainbat tokitan aktibitate batzuk egin ditugu: errekaen zati bat garbitu dugu, eta batez ere aztertu dugu zegoen zikinkeria maila. Zabor asko topatu genuen, plastiko asko eta beste zikinkeria batzuk.
- Ikusi genuen Deba arroaren bideoa, Debagoieneko Mankomunitateak egindakoa, eta bertan landu eta hausnartu genituen hainbat aspektu.

Institutua: Iruñe Alonso

- Gure ikastetxeetan txoko berdeak ipini ditugu, eta bertan ikusgai jarri ditugu material batzuk, uraren gaiarekin lotutakoak: argazkiak, horma irudiak, ...
- Kiroldegira joan ginen hainbat galdera egitera uraren kontsumoari buruz: zerbitzu horretan zer ur gastu dagoen, ea ura berrerabiltzen den bertan, ea neurririk hartzen den ura aurrezteko, eta ea neurririk hartzen den herritarrak ur erabilera egokia egiteko.
- Galdetegi bat bete genuen ikastetxeko ikasle, irakasle eta zentroko beste langileen artean, aztertzeke gure zentroetan zer-nolako ur erabilera egiten den, ea jasangarria den, ea zer gauza aldatu behar diren ingurumenarekiko egokiagoa izateko.

Gaztelupe: Carmen Murillo

- First Lego League proiektua egin eta landu dugu: atmosferako ur lurruna gizakiarentzat erabilgarria egitea.
- Bisitan joan gara Oñatiko zentral hidroelektrikora; ekipamendu haietako historia ezagutu dugu, energia elektrikoaren aspektuak aztertu, ur saltoak ikusi,....
- Aztertu dugu herriko hainbat iturri: Sarta Barbara, Munar eta San Andreskoak, adibidez. Iturri horiekin hainbat froga egin ditugu, jakiteko ea zer-nola dauden. Neurtu dugu ere zenbat ur botatzen duten..
- Egiaztatu dugu Udalatx barruan dagoen ura zelan irteten den kanpora iturri naturaletatik.
- Aztertu ditugu herriko inguru naturaletan dauden putzu naturalak (Udala inguruan), eta ezagutu ditugu mendiko ur putzuetan bizi diren animalia batzuk: uhandreak, igelak, arrubioak, burruntzia,...

Santa Teresa: Aitzol Rodriguez

- Bisitatu dugu Meatzerrekako Beneras iturburua, eta udal teknikari eta ur zerbitzuko langileengandik jaso dugu oso informazio interesgarria gure herriko ur hornidurari buruz. Jakin dugu urak zer

tratamendu duen eta zer bide jarraitzen duen gure etxeetara ailegatzeko.

- Jakin dugu zelan funtzionatzen duen Arrasateko araztegiak; ez dugu bisitatu eraikuntza hori, baina Ingurumen Eskolan sortu dugu araztegian ematen den prozesua, eta ur zikin mota guztiak garbitu izan ditugu.
- Ezagutu dugu Udala auzoko elurzuloa, eta ikasi dugu garai baten oso garrantzitsua zela elurra biltzeko lana.

Gazteluondo: Hodei Garitaonaindia

- Jakin dugunean zer animalia bizi diren errekan, bisoi europarra ere ezagutu dugu, eta jakin dugu galzorian dagoela.
- Gure ibilbideetan pasatu gara Abiadura Handiko Trenaren obretatik, eta ikusi dugu obra horiek hasi zirenetik iturburu batzuk lehortu egin direla, adibidez, Bostatekoa.
- Ikusi eta behatu dugu ura hainbat lekutan: erreketan, mendiko iturrietan, iturburuetan, putzuetan, asketan,...

Arrasate Herri Eskola: Ariana Nespereira

'Ura' ren gaia aztertu dugunean, konturatu gara arazo asko agertzen direla (asko gure herriko bizimoduarekin lotuta) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Ikasle guztiok parte hartu dugu egiten ondorioak, proposamenak eta konpromisoak, orain aurkeztuko dizkizuegunak. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien artean batzarrean, eta amaitzeko, adostu ditugu batzarrean, ikastetxe guztietako ordezkarien artean.

Santa Teresa: Mara Iglesias

Hemen aurrean gauden ikasleok gara lehen aipatu ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak. Orain entzungo dituzuen proposamenekin eta konpromisoekin bizi kalitatea hobetu nahi dugu Arrasaten, hau da, lagundu nahi dugu Arrasate hobe lortzen.

Institutua: Nerea Pérez

Ikasturte honetan "Ura"ren gaia landu dugu, eta azpimarratu nahi dugu hasieratik zer-nolako garrantzia duen gaiak: gure planetan dagoen uraren % 97 ur gazia da; beraz, %3 baino ez da geza, eta hortik ur edangarria ez da heltzen % 1era. Gure azterketetan konklusio asko atera dugu, eta gu saiatu gara hona ekartzen arazo azpimarragarrienak, eta, aldi berean, gure proposamenak, udal honetan azaltzeko eta kontuan hartzeko.

Abiatu gara herriko ibaiak eta errekek aztertzerara, eta esan dezakegu aztertutakoen egoerak ezberdinak zirela, hala nola Madariaga erreka eta Deba ibaia.

Madariaga errekan aurkitu ditugu bioadierazle batzuk kalitate oso oneko uretan daudenak; beraz, ura da kalitate onekoa.

Ikusi dugu erreka ertzean, zenbait lekutan, pinu landaketak daudela, eta horrek oztopatu egiten du erreka ertzeko berezko landaretza haztea eta hedatzea. Beste espezie inbaditzaile bat ere ikusi dugu, baina gutxiago: panpa belarra.

Gaztelupe: Ekain López

Erreka honetako zati bat asko aldatu da Abiadura Handiko Trenaren obren ondorioz, bertako landaretza moztu dute eta, ondorioz, agertu da espezie inbaditzailea bat (tximeleten zuhaixka), eta etengabe hedatzen ari da.

Deba eta Aramaio ibaiak eraldaketa handia jasan dute herrian zehar: presak, erreka ertzeko hormak, erreka estaltzea, basorik ez edukitzea eta abar. Landare aniztasun txikia aurkitu dugu eta, gainera, ikusi dugu erreka ertzeko basoa zuhaitz ilara bakarrez osatuta dagoela. Landare inbaditzaile batzuk ikusi ditugu, sasiarkazia eta reynoutria.

Erreka bi horietan aurkitu dugu animalia aniztasun txikia, baina bioadierazle onak direnak: martin arrantzalea eta ur-zozoa.

Gure erreketako ura ondo dago garbia izatea, baina garrantzizkoena da errekaen egoera naturala errekuaperatzea eta bertako biodibertsitatea. Gure erreketako ura orain dela hamarkada batzuk baino askoz garbiagoa bada ere, eta industrietako isurketak kontrolatuagoak badira ere, erreka ura errekuaperatu behar da elementu bizi moduan, eta bioaniztasuna handitu.

Arimazubi: Laia Mena

Ikusi ditugu ere, zoritxarrez, seinaledun karramarro inbaditzailearen arrastoak. Ikusi dugu ere hondakin asko dagoela leku hauetan, gehienak plastikozko poltsak eta botilak; tamalez, 100 eta 1.000 urte artean behar dituzte desagertzeko. Iruditu zaigu Deba eta Aramaio erreketako ur kalitatea ona dela, pHa, tenperatura, usaina, gardentasuna eta itxura ona duelako.

2012az geroztik ur zikinen araztegia daukagu Arrasaten eta horra eramaten dira etxeetan sortzen diren ur zikinak; horrek ekarri du gure ibaiak garbiago egotea, eta errekekako bizitza aberatsagoa izatea: martin arrantzalea, basahateak, uroiloak, buztanikarak,...

Dena den, erreka ertzean zabor asko ikusten da oraindik ere.

Herri Eskola: Yusef Ammi.

Lurrean estolderia tapen inguruan zaborra ikusi dugu, eta euria egiten duenean, euriarekin batera zaborra joango da errekarara.

Udalaitxen lur azpian ur asko dago gordeta. Euriaren bidez betetzen da Udalaitx barrutik, gero poliki-poliki askatzen joaten da erreketan eta iturrietan.

Arrasaten erabiltzen den ur guztiaren % 10 dator Meatzerrekako Beneras iturburutik, gainontzekoa Urkuluko urtegitik. Beneras da herriko ur baliabide inportantea, eta guztioi dagokigu hura babestea eta zaintzea.

Santa Teresa: Aitzol Rodriguez

Hona hemen proposamenak gure ikerketekin atera diren arazoei aurre egiteko:

- "Gure erreketan udalak ibai ertzeko landaretza zabaltzen jarraitzea, eta orain arte bezala neurriak hartzen jarraitzea landare inbaditzaileak ezabatzeko".
- "Neurriak hartzea mendietako errekaetako ertzean pinurik ez landatzeko".

Gaztelupe: Maria Murillo

- "Deba eta Aramaio errekek garbitzeko egunak antolatzea"
- "Aramaio errekan, Arimazubi eta Zarugalde inguruan dauden presak ezabatzea, oztopoak baitira bertako faunarentzat".

- "Neurriak hartzea animalia inbaditzaileak ezabatzeko, eta mehatxatuta dauden bertako faunaren alde proiektuak babestea, adibidez, bisoi europarraren alde egitea"
- Informazio kanpainak egitea erreka egoera hobetzeko: animaliei jaten ez emateko, bertako faunarentzat ez delako beharrezkoa eta, gainera, arratoiak erakartzen dira. Hondakinik lurrera ez botatzeko, gero erreka joango direnak.
- Estoldetan pilatzen den zaborra gehiagotan garbitzea.

Arimazubi: Naroa Ezpeleta

Gure aldetik prest gaude boluntarioak behar dituzten ekintza guztietan parte hartzeko. Saiatuko gara garbi mantentzen erreka bazterreko ingurua, eta, horretarako, erosketak egiten ditugunean, eroango ditugu behin eta berriz erabilgarriak diren poltsak, eta ez dugu erabiliko plastikozko poltsarik.

Hondakinak eroango ditugu berrerabiltzeko edukiontzira. Ez dugu eskatuko opari moduan landare edo animalia exotikorik.

Gazteluondo: Peru Arrese

Uraren gaia lantzean aztertutako beste aspektu bat izan da kontsumoa. Gure kontsumo ohiturak ere aztertu ditugu, eta orain badakigu horietariko asko ez direla batere jasangarriak.

Arrasaten ur asko kontsumitzen dugu, egunean 4 milioi litro gutxi gora behera, eta askotan ura erabiltzen dugu era desegokian, txorrota irekita edukitzen dugu beharrezkoa izan barik.

Kiroldegia bisitatu dugunean egiaztatu dugu ur gastua oso altua dela, eta denon ardurua izan behar da ura garbi mantentzea. Bestetik, ur gutxi berrerabiltzen da, instalazioak oso zaharrak direlako.

Arrasate Herri Eskola: Lander Iñiguez

Erabiltzen dugun ura zikin bueltatzen dugu (lantegietan, etxeetan,...), askotan ez dakigu ur zikina nora doan eta zelako kalteak egiten dituen; ez dugu kontzientziarik. Komuna zabortegei moduan erabiltzen da eta, horrela, zikinkeria pila doa erreka edo araztegiara; kristoren kalteak sortzen dira.

Arrasaten erabiltzen den ur guztiaren % 10 dator Meatzerrekako Beneras iturburutik, gainontzekoa Urkuluko urtegitik. Beneras da herriko ur baliabide garrantzitsua, eta guztioi dagokigu babestea eta zaintzea.

Institutua: Ariane Garcia

Hori guztia aztertu ondoren, gure proposamenak hauek dira:

- "Meatzerrekako ura zaintzen jarraitzea".
- "Lur azpiko urak eta Meatzerrekako iturburua herritarrei ezagutzera ematea, herrian dugun ur baliabide hori altxor moduan baloratzeko".
- "Kirol eraikin berriak eginez gero, kontuan hartzea irizpide jasangarriak: uraren berrerabiltzeko moduak, ura berotzeko energia garbiak,...
- Kontzientziazio kanpainak egitea herritarrok ura altxor bat bezala ikusteko eta kontsumo jasangarria egiteko.

Gazteluondo: June Canales

Guk gure aldetik konpromiso batzuk hartu ditugu: igerilekuak erabiltzen ditugunean, buruan izango dugu ura garbi mantendu behar dela beti, eta gogoratuko dugu igerilekua berriz betetzea izugarrizko kaltea dela inguruarekiko.

Ura zentzuz kontsumituko dugu, bai etxean bai ikastetxean, eta txorrota zabalitzen dugunean ondo kontrolatuko dugu denbora.

Santa Teresa: Alazne Canales

Arrasateko hainbat txokotan egon gara eta herrian ditugun iturriak ere aztertu ditugu. Konturatu gara Arrasaten iturri asko daukagula, 50 baino gehiago. Dena den, uste dugu falta dela iturri bat Monterongo parkean. Bestetik, neguan moztu egiten dituzte kaleko iturriak, hotzarekin hodiak ez hondatzeko, baina 10 iturri zabalik egoten dira urte osoan. 10 iturri horien ur emaria neurtu dugu, eta konturatu gara alde handia dagoela batetik bestera. Gehien botatzen duenak 2.400 ml botatzen ditu irekialdi bakoitzean eta gutxien botatzen duenak 800 ml.

Iturri batzuk beste modu batean irekitzen dira, sakatzeari uztean ez da ur gehiago ateratzen. Pentsatzen dugu horrela irekitzen direnak laguntzen dutela ura gutxiago alferrik galtzen.

Gaztelupe: Iraia Nieto

Herriko iturriak hobetzeko asmoz, gure proposamenak dira:

- "Kaleko iturrien ur emaria aztertzea eta batzuetan ur emaria txikitzea, ur asko galtzen delako alferrik"
- "Monterongo parkean iturria jartzea, eta pentsatzea zer egin daitekeen hutsik eta oso itxura kaskarra duten bertan dauden urmaelekin"
- "Munarko iturri azpikoa maizago garbitzea".
- "Agerre eta Zaldibarko iturriak begiratu, gu bertan egon ginenean ur gehiegi botatzen zuten eta".

Institutua: Saioa Coronado

Guk konpromisoa hartzen dugu herriko iturriak errespetatzeko eta egoki erabiltzeko.

Zaborrak ere ez ditugu botako toki horietan, eta ez dugu gastatuko ura alferrik gure jolasetan.

Guk argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegin bat nahi dugula, eta horretarako prest gaude laguntzeko; Arrasate herri atsegina da jadanik, baina konturatu gara denon artean gauza asko daudela hobetzeko, eta hori posible dela. Hurrengo urteetan ere jarraituko dugu gure lanarekin, eta jarraituko dugu ekarpen txikiak ekartzen foro honetara.

ESKERRIK ASKO!